

GORA EUSKERA!

Gabon eta Urteberriaren kari
Neregana Praga'ra Euskalerritik
Eldu dira zorion-agur ugari,
Baita atzerrian bizi direngandik.

Pozikan irakurtzen det gure euskera
Euskaldun zintzo guzien biotzetan.
Jainkoari esker, doala aurrera
Ospatutzen diren euskal-egunetan.

Ar ditut Onaindia Aitaren aldetik
OLERTI'ren lenengo lau zenbakiak;
Sentitzen ditut olerki bikaiñetatik
Euskal-mendi-soroen usain eztiak.

Bear dituzuten indar-kemen guziak
Olerki zoragarriak ondutzeko
Eskeñi itzazute, olerkari maitiak.
Gure euskera gozoa bizkortzeko.

TAUER'TAR NORBERTA

MAITASUN BATEN ATSEKABEZ

Alkar maitatze aren irudimenez
oroitzak ditun nerekin, baiña i ez.
Naiz len zerbait zana biurtu ezer-ez,
beti irudiz so aut, tristuren kadenez.

Atzo, beroak zitunan ire laztanak,
samur bular ontan ire arnas-ikarak,
goxo ire begiok lertutako malkoak,
eztitsuak iregandiko biotz-taupadak.

Gaur, ziñez emandako itza ukatu,
maite nindunala aitortua gezurtu,
zintzoki eskeñi zan biotza apurtu.

Goizetik-gabera galdu zonan dena.
Gaitzaren ondoren amaitu etzana:
sotiltasunez miukitu zanaren miña.

OTSALAR